

**KANPOKO EUSKAL GIZATALDEEN VIII MUNDU BATZARRAREN INAUGURAZIOA**
INAUGURACIÓN VIII CONGRESO MUNDIAL COLECTIVIDADES VASCAS EN EL EXTERIOR

2023-12-18 Donostia-San Sebastián 18-12-2023

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Eusko Legebiltzar buru andrea eta zurekin batera zaudeten herri agintari eta ordezkariok baita Jaurlaritzaren ordezkariok ere, ongi etorriak; Euskal Gizataldeen Mundu Batzarreko parte hartzaileok; Mundu zabaleko eta hamazortzi herrialde ezberdinetatik etorri zareten euskaldunok, jaun andreok, egun on!

Lehenik eta behin, eskerrik asko gurekin izateagatik.

Hunkigarria da, benetan, aretoa beteta ikustea. Guztiok dugu gauza bera amankomunean: Herria partekatzen dugu. Aberria partekatzen dugu.

Lau urte igaro dira jada Bilbon egin genuen azken Mundu Batzarretik. Lau urte hauetan gauza asko gertatu dira. Batzuk joan dira eta gogoan ditugu. Beste batzuk iritsi zarete. Etorri zaretenok erantzukizunak hartu dituzue Euskal erakundeak munduan zehar hedatzen jarraitzeko.

“Katea ez da eten”. Hori da partekatzen dugun xedea.

Lau urte igaro dira "SAREGINTZAN". Hau da, sare berriak ehuntzen eta zabaltzen. Hori izango da beti gure ipar orratza.

Hemos vivido cuatro años duros y difíciles.

La pandemia paralizó el mundo y tuvimos que adoptar medidas excepcionales en todos los ámbitos de nuestras vidas.

La Comunidad Vasca no fue ajena a esta circunstancia. Todo lo contrario, la Comunidad Vasca demostró que la red funciona, demostrasteis que la red es extensa, sólida y fuerte.

Me consta que hubo Comunidades Vascas que atravesaron serias dificultades. Algunas, incluso, sintieron la amenaza de la disolución. No fue así. Una vez más se impuso el ímpetu, la energía y el tesón de nuestro Pueblo en todo el mundo. Las nuevas tecnologías contribuyeron a mantener el vínculo y la unión.

Nos alegramos y os felicitamos por ello.

Hoy volvemos a reunirnos en el VIII Congreso Mundial de Colectividades Vascas en el Exterior.

Como Lehendakari he tenido el honor de participar en tres Congresos Mundiales: ‘Diasporizatu’ en 2015 en Gasteiz, ‘Saregintzan’ en 2019 en Bilbao y ‘Eraldaroa’, este nuevo Congreso que nos reúne en Donosti.

Estos tres lemas han definido la inquietud o el objetivo de cada momento. Hemos reconocido y extendido el valor de la Diáspora vasca con “Diasporizatu”. Hemos puesto el foco en el trabajo en red con “Saregintzan”. Ahora, con “Eraldaroa” destacamos el proceso de transformación en que nos encontramos.

Vivimos tiempos de cambio e incertidumbre. Tiempos de evoluciones rápidas a las que debemos acertar a responder de manera adecuada.

Estos últimos cuatro años hemos ido dando pasos importantes:

- La redacción de un nuevo Proyecto de Ley de la Comunidad Vasca en el Exterior,
- La dinámica Han-Hemen que trata de explorar la realidad de la nueva migración vasca y sus necesidades,
- El mundo académico está reflexionando en el Posgrado de Diáspora Vasca que actualmente se encuentra en su tercera edición,
- Estamos participando en Foros internacionales de reflexión sobre las Diásporas del mundo.

Hau da “diasporizatu”, egiten duguna eta duzuen balioan jartzea. Hau da “saregintzan” aritzea eta bizi dugun “eraldaroan” aktiboki parte hartzea.

Bideari jarraipena eman diogu eta ematen jarraituko dugu.

Jose Antonio Agirre Lehendakariak abiatu zuen lehen Mundu Batzarra.

Zortzigarren Mundu Batzar honetan, bere hitzak ekartzen ditut gogora: “Gaur egiten dugun guztia emankorra izango da bihar”. Arrazoia zuen. Egiarki sinisten dut bere hitzetan. Seguru naiz zuek guztiok ere ideia bera gurekin partekatzen duzuela. Gaur egiten dugun guztia etorkizuneko Euskadirentzat emankorra izango da. Jarraitu dezagun guztiok batera kateari jarraipena ematen.

Jarraitu dezagun gure Aberria guztion artean eraikitzen, indartzen eta zabaltzen. Eskerrik asko!